

**TOKIAN TOKIKO GIZARTEA
ETA GATAZKA SOZIALA
Zenbait Azterpide Antropologiko
eta Historiko Elkarren Laguntzaz Ari**

Kepa Fdz. de Larrinoa-k

Tokian tokiko komunitateei buruzko ikerlanetan bi gatazka sorburu desberdin ageri zaizkigu. Aztergai den herri nahiz hiriko jende desberdinaren artean sortzen diren arazoak ditugu alde batetik. Herri komunitateak instituzio sozial, ekonomiko eta politiko zabalagoekiko harremanetatik datozen arazoak bestetik. Iharduera sozialean ageri diren bi esfera horiek ez dira elkarretatik berex eta modu konplexu batez erlazionatzen dira. Lehenik antropologiari eta ondoren historiari zuzendurik dagoen artikulu honek bi disziplina horietako metodologia eta kontzeptzioak jasotzen dituzten analisi ereduak aurkezten ditu, gatazka eta aldaketa sozialei buruzko ikerketetan.

En el estudio de la comunidad local al menos dos son las fuentes de conflicto social. De un lado están los problemas que se generan de las relaciones entre las gentes pertenecientes a la localidad en estudio. De otro lado están aquellos problemas derivados de las relaciones entre la comunidad local e instancias sociales, económicas y políticas más amplias. Ambas esferas de actuación social no se dan una al margen de la otra, sino que se entrecruzan de manera compleja. Este artículo se dirige primero a la antropología y después a la historia, y presenta varios modelos analíticos que en el estudio del conflicto y cambio social combinan las metodologías y presupuestos de ambas disciplinas.

While studying local communities, at least two sources of social conflict are perceived. On the one hand, asymmetric relationships are usually observed within community life. On the other hand, local experiences take place within wider social, economic and political processes. Both realms of social intercourse do not occur within clear boundaries or isolated from each other. Contrariwise, they intermix in a complex manner. This paper focuses on some anthropological, as well as some historical work related to «local conflict».

Sarrera

Gutxienez bi gatazka sozial edota arazo moeta bereiz daitezke tokian tokiko gizarte edo komunitateen ikerketan: barne harremanetatik sortzen dena eta kanpoko munduarekin harremanetan egotetik datorrena. Bi arazo-iturriok ez dira suertatzen elkarretik aldenduak, bata bestetik isolatua. Alderantziz, gatazka bi moetek konplexuki elkartuta agertzen dira harreman sozialetan. Txosten honek antropologiari, lehenengoz, eta historiari, bigarrenez, begiratzen die, tokian tokiko gatazka soziala aztertzeko erabili izan diren zenbait aurre-iritzi eztabaidatu asmoz. Hiru ataletan dago artikulua hau banatuta. Lehenengoan zera azpimarratu nahi dut: aurreneko antropologia britaniarraren funtzionalismo estrukturalak ez zuen gatazka eta aldaketa soziala aztertzerik, adierazpide teoriko sinkroniko bat erabiltzen zuen eta. Azken urteetako Ipar Ameriketako «kultura» kontzeptuarekin gauza bera gertatu zaio. Akats hauetatik alde egiteko historiara urbildu beharra izan du bi kontinente hauetan praktikatzeko hasi den antropologia berri-suagoak. Bigarren atalean honakoaz dihardut: zenbait historialarik, gatazka aztertzekoan, arazo sozio-ekonomikoak analizatzera zuzendu lekuz, kultura edo kulturazko ezaugarri garrantzitsu batzuek hartu dituzte adierazpen sozialaren gakoak. Hala eginez, antropologiara urbildu dira. Azkenez, Euskalerrian praktikatzeko den antropologiara nator, eta zera indartzen dut: herri kulturaren azterpide teoriko eta praktikokoak gizarteko erlazioak asimetrikoak direla, beraz arazodunak eta gatazkakoak, azaldu behar dute.

Antropologiatik historiara

Lehenengo mendealdia amaietan, batez ere 1860-1890 bitartekoan, paradigma eboluzionista nagusia zen antropologiazko ikerlanean. Metodo konparatiboa, gizakien bizimoduaren azterketatik lege unibertsalak jarraitzea eta Historiari —«H» majuskulaz idatzia— erantsitako garrantzia, besteak beste, ziren teoria eboluzionisten ardatz nagusiak. Gizakien historia Historia bat-bera zelakoan zeuden eboluzionistak. Heuren ustez, giza arraza guztien historia Historia berbera zen, amankomuneko eta lerrobatekoa izana, norabide bakar batetik barrena bilakatua.

XX mendeko antropologia, bestalde, eboluzionismoaren aurkako erreakzio erradikal bezala garatu zen. Bronislaw Malinowski-k eta A. R. Radcliffe-Brown-ek Britaina Handian eta Franz Boas-ek Estatu Batuetan paradigma teoriko ezberdinak tankeratu eta instituzionalizatu egin zituzten: funtzionalismoa, funtzionalismo estrukturala eta partikularismo kulturala, arestiko autore bakoitzaren teoriaren izenei dagozkienez. Hiru azterpideok Historiak lehendik zekarren inportantzia izugarrikoari uko egiten zioten.

Historia eta antropologia disziplinen bilakaeran ikus dezakegunez, bakoitza bere kasa ibili da askotan, eta elkartzera jo dutenetan elkartze-modeloak ez dira beti berdinak izan. Bestelako analisi eta elkarpediak, beraz, proposatu izan dira antropologo eta historialarien artean. Antropologiaren eta historiaren artean gertatu diren zenbait gogoeta azaltzea dut datozen le-rootako xedea.

Aztergai zer den eta azterketaren estiloa nolakoa den, antropologiak abizen ezberdinak erabili eta erabiltzen ditu, hala nola «biologikoa», «fisikoa», «politikoa» eta abar luzea. Hemen neu noakiona giza zientziekin harremandua dago, eta bi abizenaz nagusiki dugu ezagutua historian zehar: batetik «soziala» abizenaz, eta bestetik «kulturalaz». Oro har, bata eta bestea bi tradizio akademikotan barrena abiatu izan dira. «Antropologia soziala» esakera tradizio britanikotik datorkigu, «antropologia kulturala», ordea, Ipar Ameriketako unibertsitate-departamentuetatik heldu zaigularik. Bi kontinenteon artean dagoen itsaso fisikoa amildegi akademiko bihurtu da antropologoaren artean, zenbait kasutan behinik behin.

Hala izan delarik ere denbora luzez, «sozialari» kulturala eta «kulturalari» soziala eranste-ko ahaleginak antzematen dira, antzeman ere, gaur eguneko jokaera antropologikoa. Konbergentziak edo bateratasunak plazaratu dira, eta hona, esate baterako, I. M. Lewis antropologilari britaniarrak proposatua: harreman sozialetarako ingurunetzat jo behar dugu kultura, edota harreman sozialen eduki edo mamitzat; gizartea kulturaren proiektio enpirikoa bailitzan aztertzea delarik, diosku Lewis-ek (ikus 1976: 18-20). Kulturala eta soziala bategiten dituzten iharduera serioenak adierazpide dialektiko baten beharrean gaudela diote, zera azpimarratuz: kultura eta gizartea elkarri lotarazten dioten perspektiba bakarra analisi historikoa dugu.

Beraz, gaur eguneko antropologiari interesgarrienak historiari egiten dio hots (ikus esate baterako Comaroff 1985, Taussig 1980, Bach 1985, Lan 1985). Alde batetik, Britaina Handiko antropologiari dagokionez, funtzionalismo estrukturalak hain nabariri ispliatzen zuen giza-modelo estatikoa edo egonkorra deseraikitzen du delako analisi edo dimentsio historikoak. Beste alde batetik, Ipar Ameriketara garatu den antropologia moetari gatxeziolarik, giza hartu-emaneko, dinamikazko eta prozesu ganbiakor edo bilakaerazko ikuspegi bene-benetan beharrezko bat txertatu dio «kultura» kontzeptuari (ikus Sider 1986).

Antropologiak historiari darion dimentsio zabalaren beharra zeukala baieztatu zuten aurreneko antropologo britaniarren artean Evans-Pritchard dugu. Historia moeta ezberdinak eta antropologia klase diferente badaudela azpimarratu zuen Evans-Pritchard-ek, badutela zerbait baltzuan esanez. Honakoa diosku autore honek: «historialari soziologikoe» eta dinamika sozialaren (1) antropologilariak badute elkarren artean galdeketa eta ikerketazko eremurik. Areago, haien arteko ezberdindadea ez datza proposatzen dituzten helmugetan, helbideetan baino. Are gehiago, bere ustez, bi disziplina separaezinak dira, zeren eta, egituraren eta jazoruntzaren arteko barne-kontrajarpenak (edota pentsamoldearen eta ekintzaren artekoak), maila teorikoan gainditezketan, antropologiak historia behar du nahitanahiez.

Evans-Pritchard-ek, ondorioz, onetsi du badela maila epistemologikoa konbergentzia nahikorik antropologiaren eta historiaren artean. Bernard Cohn-ek ere idatzi du antropologiak eta historia elkarrekin konpartituz, autore beronek xehetasun gehiago ematen digularik. Konpartitua honakoari darraikiola diosku: 1) biek «bestetasuna» dakaste (2): 2) biek «testuak» eta «textuinguruak» dituzte aztergai; 3) biek espazio edo denbora zehatzeko jendeen ekintzak eta esangurak azaldu behar dizkiote beste espaziozko edo denborazko jende diferenteei: 4) ondorioz, biei ideien eta antolamendu sozial ezberdinen itzultze-prozesu nabaria darie; 5) biek modu literario batez, izkribuz hain zuzen, aurkezten duten beren lanaren uzta: eta 5), «ulerpena» eta «azalpena» dituzte biek helburutzat, predikzio edo aurreanaren lekuz.

(1) «Soziologia diakronikoa» berak dionez.

(2) Antropologiak espazioan zehar suertatzen den «bestetasuna» ikasten du jeneralean. Historiak, ordea, denboran zehar gertatzen den «bestetasunaz» ohi dihardu.

Teorikoki begiratuta askotxo konpartitzen duten arren, praktikak, ordea, bestela adierazten dute, dio Cohn-ek. Zeren zatiketak, disziplinen barne banaketak, korronte akademiko ezberdin edo kontrajarriak eta bereizketa sakonak ari bait dira lanean. Unibertsitate-departamentuetako mundu pragmatiko eta banatzailean barrena agertzen direlako historia eta antropologia sakonki elkarretik aldeniak, baltzuan dutena, berriz ere azalera ekarri behar dugu. Antropologia eta historia elkarren komunikazioan jarri behar ditugu. Biak ber-indartu beharrean gaudela, elkarri lagun diezaiotela proposatzen du Cohen-ek.

Metodologia eta azterpide antropologikoak sinkronikoak direnez gero, giza bizimoduaz antropologilariak esana «errefikazioa» edo «objektifikazioa» besterik ez da. Cohn-en irudituan, gizartea eta biziiza era historiko batean ikasiz gero, bizimodu sozialaren objektifikazio prozesutik alde egiteko moduan jartzen da antropologoa, giza antolamenduaren edifikazioa nola eraikia den —adriluek, materialek, paretek eta besteek nolako zimendua daramaten— ikasgai delarik.

Gaurko literatura antropologikoak azalarazi gura duenez, kultura eta gizarte danak kontrukzioak dira. Giza gogoetaren eta ekintzaren produkto dira. Gizaki sozialek eraikia eta sortua bait da, etengabe ari da itxura-aldaketan. Bestela esanda, gizon eta emakumeak intenzioen eta ondorengoen mundu batean bizi dira hain zuzen ere, historiak kultura bihurtarazten duen mundua dena.

Hiru kontzeptu dira garrantzitsu Cohn-en historia antropologikoan: gertakaria («event»), egitura («structure») eta itxuraldaketa («transformation»), Pierre Bourdieu-ren «habitus» nozioan daudenak. Azken autorearen berbetan, zera dugu «habitus» delakoa: habitus-a kulturaren elementu dinamikoa da, eskuratu ahal dugun sinbolismoarekin jokatzeko bidea ematen digun iturria, alegia. Besteak beste, espazioa eta denbora modelo teoriko eta praktikoa adierazkor eta integratzaile batean agertaraztea izan da Pierre Bourdieu-ren lanaren helmuga (ikus bourdieu 1977).

Marshal Sahlins dugu antropologiaren eta historiaren artean zubi bat eraikitzen saiatu den beste antropologo bat. Kulturaren aztergile hau Fernand Braudel historialariaren lanetik abiatzen da. Sahlins-en iritziz, «antropologia historiko, estruktural baten» atzetik ibili behar dugu. Egitura eta gertakaria, edo bestela esanda, egitura eta historia bir-pentsatu behar ditugula modu dinamiko batean barrena, biak elkartzu eta aztertuz, agertzen du Sahlins-ek (ikus Sahlins 1981).

Oro har, hauxe dugu Sahlins-ek iugumentatua: ordenu kultural ezberdinek ekinpide historiko ezberdinak, kontzientzia-era eta erabaki-modu diferenteak azaltzen dituzte. Hau da, ordenu kultural bakoitzak bere ihardubide historikoa erakusten du. Sahlins-en xedea, beraz, zera da, «historiaren» kontzeptua aztertzea antropologiak garatu duen «kulturaren» kontzeptua erabiliz.

Beste alde batetik begiratuta, Sahlins-en azterketa jokalaria sozialaren beraren ikuspegiaren ikerketa da, zeren eta kultura baten barruan erabiltzen diren kategorien eta expresabideen bitartez nola experimentatzen den historia aztertzea ardatz nagusi bilakatzen bait zaio autore honi. Sahlins-en iritziz, arazoa zera da: ordenu kulturalaren eta iharduera enpirikoaren artean suertatzen den erlazio historikoari atxekitzea; alegia, esangurazko egiturek bideratzen dutela historia erakustea. Historia, ondorioz, kulturaren jarioa da.

Sahlins-en bideraketak antropologiaren oztopo orokor bat dakarkigu begibistara: nola elkar daitezkeen, alde batetik, aztertzen ari garen gizabanakoen ikuspegiak edo kategoria kulturalak —beren iraganaz daukatenak— eta, beste alde batetik, European garatu den «historia objektiboaren» kontzeptua, hau da, iragana «benetan zer gertatu zen» modura ulertuta. Erantzunik bilatzekotan, berriz jo behar dugu Evans-Pritchard-engana. Idazle honexek dioe-

nez, historia antropologikoa ez da ahalegiten historia europearra ispilutzat hartu eta historia paraleloak eraikitzen. Bestelako kronologiak liburu modura azaltzea ez da historia antropologikoaren betebeharra, ezta ere irudigintza mitikotik izate historikoa inferitu egitea. Kontrara, gako duguna zera da, esangurak eta edukiak. Alegia, kulturek ezarritako esanpideetan barrena azaltzen dutena jaso egitea.

Bernard Cohn-en izkribuetara nakar berriz ere argudio honek, nori idatzia bait du ezen historia antropologikoaren ikergaiak kulturalak eta «kulturalik jinak» behar ditugula euki: ohorea, aginpidea, boterea, gatazka eta abar. Historia eta antropologia elkarlanean ari izanez gero, tankeratzen duten esparruak kulturalen konstrukzioaz eta eraiketa delakoaren prozesuaz edo ibileraz dihardu. Bestela esanda, historia eta antropologia auzolanera ekarri eta honakoa agertzen dute: metaketa praktikoen baten elkarpen teorikoa —hots, gizartearen dinamika (historia) eta kulturaren dinamika (antropologia) bateginik.

Historiatik antropologiara

Antropologiaren eta historiaren arteko laguntasuna oberen ikusten deneko gai akademikoa herri kultura da. Herri kulturaren ikasketan —batez ere, charivari eta beste gertakizun publiko eta antzeztuen ikerketan— historialari ugari urbildu dira antropologiak ezarritako azterpideetara. Ikus ditzagun, labur oso, zenbait adibide.

Natalie Zemon Davis-ek (1975) azpimarratu ditu charivari-en ezaugarri legalak. Hots, charivariak gertatzen direnean herri edo komunitate-zuzenbidezko arzoziak plazaratzen dira. Zemon Davis-ek berak jarri duenez, «alaitasunaren, jolasaren eta krudelkeriaren nahasketa zalapartatsuan, charivaria ahalegintzen da komunitate bateko kontuak zuzentzen» (p. 42). Beraz, charivari batez ari izateak kontrol sozialaren mekanismoak ikastera gakartza.

Zemon Davis-ek ikerketa etnografiko-historikoa egiten du. XVII mendean Geneva-n eta Lyon-en suertaturiko lau charivari aztertzen ditu aipaturiko saioan. Bi charivari baserri-alderdiko komunitateetan gertatu ziren, eta beste biak artesau hiritar girokoetan. Lau charivariak betiko modura hasi ziren, bai alarguntsaren berezkontzarekin, bai andre batek bere senarra jotzearen kausaz. Ez zuten ordea amaitu ohizko modura, zeren trufatuek auzitegira joan bait ziren, berek jasatako herri-jipoa denuntziatzen. Nagusiki, hiru arrazoiengatik da garrantzitsu Zemon Davis-ek egin duen azterketa hau. Alde batetik, antzerkiaren balore literarioetan interesatuak daudenek portaera sozial ez-onartuak jendearean irigarri bihurtzeko erabiltzen diren tresna dramatikoak bila ditzakete. Beste alde batetik, kontu sozialei datzekien ikerlariak bai XVII mendealdiko artesau eta herritarren izen ona eta ohorea zertan zeutzen, eta bai gizabanakoak elkarrekin komunitate moeta batean bizitzen zernelako indarren bidez lortzen zen azter dezakete. Eta azkenik, politik eta zuzenbide-arazoetan ardua duenak zera aurkitzen du: estatu-zentralizazio prozesu sendo batean bi aldetako gatazka darakus Zemon Davis-en saioak, estatuko araudiak eta legemoldeak tokian tokiko zuzenbideak, ikuskerak eta herri-antolabide sozialak baztertu araziz. Hau da, gizabanakoak herri aginpideez zein estatu aginpideez baliatzen dira segun eta zein egoeratan dauden eta zernelako helburuak dituzten komunitatean. XVII mendean debekatuta zegoen charivariak eratzea, eta debekatuak izan badira ere anitz urtez, antzeztu izan dira hor eta hemen. Hona arestian aipaturiko zuzenbide kontrajarri hauen arteko gatazkaren froga publiko eta nabaria.

Herri kulturaren eta politikaren arteko harremanak sendoak izan dira denboran zehar. XIX mendeko baserriar giroko Frantzia, Bigarren Errepublikako urteetan (1848-1851) hain zuzen ere, modu honetara ikusten da, Pete McPhee-ren (1979: 240-253) saioa irakurri gero. Garai hartan, bizitza ekonomikoan, portaera politikoan eta kexu-manifestazioan aldaketa nabarmenak jasotzen ari ziren. Egoera berritsu honi «moderno» edo «industrial» zeritzon, zeinak,

McPhee-ri jarraikiz, esan nahi bait du, zentralizaturiko estatu-nazioaren kriterioei tokian tokiko-
ei baino indar gehiago ematen zitzaizela, urrun erabakitako neurri legal eta indarkeriazkoak ge-
ro eta errezagotzat aplikatzen zirelarik tokian tokiko bizimoduetara. Frantziako baserriar giroko
herrietako egituren itxuraldaketen artean honako ezaugarria dugu garrantzitsua: herri basoen
jabegoa eta baileraren botere administratibo eta politikoa. Tirabirak sortu eta azaldu ziren. Zera
erakutsi nahi digu MCPhee-k bere artikuluan, baserriar giroko egituren itxuraldaketaekin ba-
tera sinkretismo edo nahasketa bat gorpuztatu zen, baserri giroko erradikalismo zuzen berria
—ideologia demokratiko sozialista— eta urteetan finkaturiko herri-folklorearen esanpideak el-
kartzen zituen. Argumentaturik atxekitzeko, hiru exemplu etnografiko dakarzkigu autore honek:
alde batetik, Provence-ko Collioure-n ospaturiko ihauteri zelebrazioak; bestetik, Fioussi-
llon alderdiko Corneillala-Rivière herriko patroibestak; eta azkenik, Pirineoetako Oms herrian
zeiebraturiko ezkontz-ospakizunak. Azterketatik honako konklusioa dario: «beren herri kultura
ez zen aldaketa sakonezko gizaratean deseagertzeaz zegoen erlikiarik, baizik eta, aldialdi ba-
teaz gutxienez, politikaz eta gizarateaz ideia berriak adierazteko bide kolektiboak eta erritualak:
(Mc Phee-k 1978: 246).

Lerroon hasieran aitortzen nuen historia eta antropologia elkarren beharrean daudela.
Charivariak eta, oro har, herri kultura ikastea baserriarren eta artesauen folklorea eta gizartea
parez pare ezartzea da. Eta, Maurice Agulhon-ek (1970: 416-17; MCPhee-k aipatua) dioenez,
Hegoaldeko Frantziako herri politikaren berri jasotzeko obe dugu herri kultura eta folklorera
gure begiak zuzentzea, historiara baino, harek (folkloreak) tokian tokiko kulturaren, eta finka-
tzen ari zen estatu-nazioaren inposaketaren, arteko tirabirak ederki ispliatzen bait ditu. Euska-
lerriko charivarietaz idatzirikoak, batez ere Zuberoko herri-teatroaz, antzerki modu zehatz be-
zala aztertuak izan dira. Eta halaxe da. Antzekizun, folklore eta herri kultura dira. Baina ho-
naino argudiatu dudanari darraikioez, antzekizun literarioak ezezik, antzekizun sozial eta
politikoak ere ditugu, zeren eta jipoi, kexu edo eskaera publikoaren antzekizunak bait dira
—jendearurrean errepresentatzen diren eskenifikazio sozialak dira, alegia. Edward P. Thomp-
son-ek (1974) ederki azaldu duen modura, «kontra-teatroa» dira herri antzekizunak, gizar-
teko ordenuaren sinbolo nagusien aurkako jokora datozte eta. Victor Turner antropologoak «egi-
tura sozialeko ahulak daukan arma» deritzo (ikus Turner 1974). Dudarik gabe, klaseen eta tal-
deen arteko tirabirak agertarazten dituztelako, trufak, irriak, parodiak, itzulera sinbolikoak eta
bestelako erraizunak kexu eta protesta subertsibo bilakatzen dira herri antzekizunetan.

Natalie Zemon Davis historialariaren aipuarekin hasi naiz izkribuaren zatitxo hau. E.P.
Thompson historialaria aipatu berria dut. Bi autoreekin bukatu nahi nuke antropologiaren eta
historiaren arteko harremanek sendotzenago joan behar dutela defendatzen duen artikulutxo
hau. Bai Davis-ek eta bai Thompson-ek, hezkuntzaz historiadoreak izan arren, antropologia
mailegu dute beren lanetan. Akaso, Thompson-engan antropologiaren influentzia apalagoa
da, Davis-engan baino. Clifford Geertz, Mary Douglas, Arnold Van Gennep, Max Gluckman,
Evans-Pritchard eta Victor Turner antropologoek eragina ikus daiteke Natalie Zenon Davis-en
ikerlanean; antropologia sinbolikoaren ñabardura txikiagoa delarik, ordea, Thompson-enean.
Erljioa eta jeneroa gatazkaren eskenario nagusiak dira Dais-en ikerkuntzan. Klase sozialen
arteko konfliktua eta burrukak dira Thompson-en funtsezko gaiak.

Suzanne Desan-ek (1989: 47-71) idatzi duenez, bi historialariek darbiltzaten ingurugiro te-
orikoei begiratuz gero, zera behar dugu esan: nahiz eta Natalie Zenon Davis funtzionalista
hutsa ez izan, autore honek aurreuposatzen du ezen matxinadek, herri-bestek eta charivariak
funtzio eta esangura zehatz-mehatzak dituztela komunitatearen barruan. Beraz, fenomeno kul-
tural hauen interpretapena dela medio, sistema soziala nola ekartzen eta osatzen den, eta par-
tehartzaileek nola perzibitzen dituzten bere buruak eta kanpoko mundua, agertzeko gai gara.
Thompson-en eskema, horregatiko, marxista da, esperientziari eta kontzientzia sozialari izuga-

rrizko inportantzia ematen dielarik. Thompson-en marxismoa ez da ortodoxo-ekonomizista, ordea. Zeren eta Davis-ek zein Thompson-ek gauza bera azpimarratzen bait dute: aspektu kulturaiei sozio-ekonomikoei baino ekitenago diete. Aztergile biek, normen, baloreen eta eritua-len ikasketan oinarriturik, berauen funtzio esankorrei datzekie, bai aginpidezko, bai kontrol hegemonikozko eta bai erresistentziatzko mekanismoak direnak. Beste alde batetik, bir-formulatu egiten dute Van Gennep-en, Eliade-n eta Lèvi-Strauss-en antropologia sinbolikoa Davis-en eta Thompson-en lanek, aldaketa historikoaren, tokian tokiko ingurugiroaren eta arreta etnografiko eta enpirikoaren dimentsioak modu kritikoz erantsiz.

Ondorioz, biderapen kultural bat dakarte historiara Natalie Zemon Davis-ek eta Edward P. Thompson-ek, tokian tokiko giza esperientzien eta ekintza erritua-len bidez suertatutako burruketan elkartu eta lotzen diren aspektu politiko, erlijioso, sinboliko eta sozialak astintzen dituzte-larik. Beste modu batez esanda, tokian tokiko statusak, gatazkak eta boterea komunitateaz gaindi garatzen diren prozesuekin zernolako harremanetan dauden ikergai dute. Hau da, giza taldeek publikoki plazaratzen dituzten esanpideen ikerketan, antropologiaren «significance» eta «mentalité» azterbideak eta historiak dakarren boterearen eta aldaketaren dinamismoaren kontzientzia bategitea hartu dute beren gain lepo. Heuren lumetan «legimitatea» eta «komunitatea» berbak abiapuntu izanik, itxuraldaketa, gatazka, indarkeria eta kexu-erakuspenak mintzagai bihurtzen dira.

Jokalari sozialak ez dira inolaz ere agente pasiboak, zenbaiten analisisetatik jalkitzen ohi denez. Davis-en eta Thompson-en idazlanek segituan salatzen dute hala ez dela. Susan Desan-ek ederki adierazi du: «azken batez, Frantziako erreformako eta industrializatzen ari zen Inglaterroko jendeen egunerokotasunaren, buru-jabetasunaren eta aktibismoaren ikerketan, bai Davis-ek eta bai Thompson-ek, batez ere, froga idatzi gutxi utzi zuten pertsonen, eta belaunaldiz belaunaldi idazteke iraun duen historiaren jendeen bozak agertarazten ihardun dute. Egituren eta erlazio sozialen artean kultura dela ararteko azpimarratuz, Davis-ek eta Thompson-ek, beheko klaseak eta jendeak historian kanpoko indar determinatzaileen biktima hutsak ez baina heuren izan ezezik, heuren historiagintzan eta beren identidade kulturalaren definiketan paper handia eta eraginkorra jokatu zutelako iritzia eta froga azaldu dute» (1989: 55).

Historia, gatazka eta antropologia gaur eguneko herri kulturaren ikasketan

Duela gutxi Patri Urkizu (1988) idazleak argitara eman zuela saio polit bat Zuberoako irri teatroaz, bertan ematen digularik Iparraldean antzezturiko hiru charivaritaz mende honexetan gertatuak. Azkena 1988. urtean Hazparren herrian plazaratua.

Baxenabarreko antzezkizunak izan ezezik, Zuberoako Maskaradak eta Pastoralak herri kultura antzeztuaren adibide bizkor eta ederra ditugu Euskalerrian, irganean antolatuak eta gaur egunekoak. Arestiko horrialdeotan iraganean suertaturiko zenbait herri kultura moietaren ikasketan zernolako azterpideak eta zernolako harremanak eta laguntasunak ikusten ditugun historiaren eta antropologiaren artean izan dut mintzagai. Datozenotan, ordean, honakoaz nahi nioke neure buruari galdetu: gaur eguneko Euskalerriko «herri kultura» deritzogunaren azterketara, dagoen edo balizko, gatazka sozialik eta gertakizun konfliktibodunik erantsi nahi izanez gero, historiaren zernolako kontzepzioak eta antropologiaren zernolako nozioak ari izan behar dugu? Dakusagun.

Antropologian izugarrizko inportantzia ematen zaie etnografia/teoria harremanei. Irakatsiak izan garenez, antropologia etnografia on baten beharrean dago, ezer interesdunik nahi badigu kontatu, gureak ez bezalako bizimoduetaz diharduenean. Antropologoa, beraz, alde zurretik, etnografoa da. Tokian tokiko lanean ari eta ikusiaren deskripzioak moldatzen ahalik eta zehatzen saiatzen da. Hau ez da gauza berria, noski. Antropologoa, bestalde, ez da kon-

formatzen deskripzio hutsaz. Nola edo hala antropologoak «beztitu» egiten du dagien deskripzioa.

Antropologiazko literatura zabala da. Denetarikoa dugu. Hautatutako gaiak, ikasitako bizi-moduak, azaldutako kezak eta ametitutako gustuak aldatu eta aldatzen direla denboran zehar begibistara azaltzen zaigu, disziplina antropologikoaren historiari buruz argitaraturiko edozein introdukzio-liburuxka irekiz gero. Antropologiak bi bazter agertarazten ditu: unibertsalismoa eta partikularismoa. Alde batetik, mundu osoko gizarte eta pertsonen arteko antzak azpimarratu nahi dira. Bestetik, ezberdintasunak. Jakina, bi muturron arteko aldakiak eta konbinazioak ugari dira. Euskalerrian egin den antropologian ere halakoxe bariedadea dugu. Bai etxeko eta bai kanpotik etorritako idazleengan, talde bietan, berehala susmatzen dira ezberdintasunak. Ez da kontua «etxeko idazle/kanpoko idazle» bereizketa dagoenik. Ez. Hala-kerik ez da suertatzen. Kontua, bestela, zera dugu: zer nolako molde teoriko erabiltzen duten, alegia.

Duela denbora gutxi hartu nuela parte «herri kulturaz» izeneko ihardunaldietan, Euskalerriko hiriburu batean zelebratu zirenak. Txostenak irakurri osteko mahai-inguruan ari ginela, entzulegotik, batek, debatea biztu asmoz, datu etnografiko ederrak emanak bagenituen arren hizlariok, teoria alde batera utzia genuela bota zigun. Galdera egin zuena oker zebilen, ordea. Bazen gure artean antropologiazko kontzepzio diferenterik. Eskola, autore edo modeloen izenik aipatu ezik, hizlari bakoitzak bere bidea aukeratua zuen, deskripzioak, datuak eta etnografia jendeaurrera ekartzerakoan. Kosmologia ezkutu baten haritik azaldu zituen guretako batek berak bilduriko datuak. Nik neuk giro sozialaren arlotik jorratu nituen neureak. Eta, banan-banan, hizlari bakoitzak bereari ekin zion, jarrera bakoitza errealitatearen azalpide ezberdina zelarik. Nahitanahiez, «etnografia/teoria» harreman aurean ibiltzen gara beti. Eta nolako harremana den funtsezkoa da, zeren bizi gareneko mundua nolakoa den ispitzatzen bait du.

Euskalerriko antropologia akademikoaren hastapenak jorratu izan dituzten idazleak Julio Caro Baroja eta Joxemiel de Barandiaran ditugu. Oro har, bi «etnografia/teoria» harreman ezberdin antzeman ditzakegu haien izkribuetan, historia, gizarte eta jendeen bizimoduak modu diferentz tankeratzen dituztenak. Nolabait, bi autoreok erabili dituzten modeloen (3) oihartzunak entzun zitezkeen gu ari gineneko mintzaldien areto hartan. Gainerako euskal antropologiaren ikerlanei ezaugarri bikoiztu hauxe bera dariela esango bagenu, ez ginatke oker egongo.

Herri kulturaz idazten dugunok ere bi jokaeron artean mugitzen gara. Alde batetik, «sobrebibentzia» hitza darabilkitenak daude. Beste alde batetik, «asmakizuna» edota «konstrukzioa» edo «eraketa» darabilkitenak daude. Lehenengo kasuan, herri kulturak aintzinako bizimoduaren trazak ematen ditu. Areago, hiltzearen ohi dagoenez, lehen bait lehen jaso eta jakinarazi behar ditugu. Datuak bilduta eta deskripzioak eginda, gure antigoaleko aztarnak eta sustraiak ezagutzen kapazak gara. Postura honetan ibiltzen direnentzat iragana inportantea da. Orainaldiko bazterreko bizimoduak zehatz-mehatz ikertuta, iraganeko egitura sozialak, sinemenak, kosmologiak, jokaerak eta pentsamoldeak agertarazi nahi dituzte.

Herri-kultura «konstrukzio-tzat» jo dute askotxok. Hau botatzeak zera nahi du esan: herri-kultura ez da berez existitzen, kanpotik definitua da. Ikertzen ari gareneko bizimoduaz kanpo sortu eta garatu izan diren ezaugarriak eta definibideak erabiltzen ditugulako, «herri-kultura» deritzona asmakizuna dela azpimarratzen da. Oro har, bereizketa nagusi bat suertatzen da herri-kulturaren ikerlanetan: bizimodu hiritarren trazak eta besteak. «Besteak» dira herri-kultu-

(3) Hau da, Barandiaranen modelo historiko-ebolutiboa eta partikularista, eta Barojaren modelo historiko-soziala sinifikantzari eta forma kulturalen edukuari begiratzen diena (ikus Azcona 1984).

ra. «Besteak» hau, horregatio, zabalegia da, eta urrengo berizketa bat egiten da. Batzu, etorkiz hiritarrak ez izan arren, bizimodu hiritarrei urbildu zaizkie. Beste batzu, oraindik mundu modernotik urruti daude. Beraz, argumentazio honi segituz, bada selekzio-prozesu bat. Bizitza moeten artean zenbait aukeratzan dira egokiagoak beste zenbait baino, herri-kultura zer den aztertzeko eta nolakoa den adierazteko. Ondorioz, ikertzaileak «herri kultura» ikasten duela dioenean, aldez aurretik berak aukeratu du zer den «hiritarra», «ez dena» alde batera utziz. Ikerkuntzaren prozesu honi «asmakizuna» edo «konstrukzioa» deritzote zenbaitek, herri kultura, disziplina eta ikergai akademiko gisa ulertuta, errealtatean izan ezik, antropologoaren eta ikertzaileen mundu-mapetan bakarrik existitzen da eta (ikus Hobsbawn and Ranger 1983; Williams 1980).

«Asmakizuna» hitza erabiltzen dutenek eta «sobrebibentzien» adierazpideei atxekitzen direnek abiapuntu bera dute baltzuan: orainaldiko bizimodu nagusiaren aurrean bazter moduan perzibitzen duguna. Bi jarrerak historikoak dira, hau da, historian kokatzen dituzte ikasleko diren gizabanakoak eta bizimoduak. Hala izanik ere, jomugan separatzen dute elkar. Erabiliako historiaren nozioak ere oso ezberdinak dira. Biek, bestalde, konpartitzen dute honako eritzia: herri kulturatzat jotakoa eta bestelako bizimoduak elkarrekin edo elkarren ondoan suertatzen dira. Denbora berean bizi izanik, izankide dira.

Bizimoduak ez dira neutroak, ordea. Bizimodu bakoitzak harreman sozialen sare berezi bat dakar bere baitan. Giza beharrei aurre nola egin, nola berdindu, nola asetu eta gainerakoei aurpegi ematen diete gizabanakoek, berek eraikitzen dituzten sistema sozialen bitartez. «Herri kulturaz» izendatzen ohi dugunak bazterreko kidea ezagutarazi nahi du —indarrik, bozirik eta estimaririk gabeko harreman sozial eta produktibo sistema. Sistema sozialen koexistentzia ez da simetrikoa gaur egunean nagusi dugun merkatuzko ekonomian. Indar eta eskubide berdineko izankiderik ez dago. Indar eta eskubide berdineko pentsamoderik eta portamoderik ez dago. Haien arteko harremanak asimetrikoak dira, politiko-ekonomikoak alegia.

Herri kulturaz diharduten izkribu askotxori nostalgia edo erromantizismoaren kutsua, nabarmenez zein ezkutuan, darie. Halakoxe kutsurik dakusagu orainaldiko bazterrak iraganaren denboraldietako sistema sozialetan eta pentsamoldeetan kokatzen dituztenengan. Pertsonak, ordean, gaur eguneko urtean bizi dira eta gure denboraldietako harreman sozialen barruan ikasi behar ditugu, beren erabakiak gaur eguneko munduan hartzen dituzte eta.

Nostalgialatik eta erromantizizmotik alde egiteko ihespide nahikoak daude. Gure artean gutxitan praktikatzen den ariketa batek zera dio: bizimoduak ez dira suertatzen espazioan eta denboran elkarretik aldenduak, artikulatuak baino. «Herri kulturazko» azaroei bestelako argirik ekarri nahi duenak, edo «herri kulturazko» izkribuetatik ondore mamitsuagorik atera gura duenak kontutan har beza premiazko dugun modeloak permititu behar digula ikusten pertsonak beren buruetaz erabakiak hartzen dituztela, maizasko kontrolatzen ez duten, eta aurre egiten saiatzen zataizkion, mundu politiko-ekonomiko batean.

Laburbilduz

Bronislaw Malinowski-k tokian tokiko lana instituzionalizatu zuen geroztik hain zuzen ere, antropologia sinkroniaz, egituraz, orekaz, eta konpartituriko baloreetat mintzatu zaigu luze xamar. Historian, haatik, aldaketa dugu gehienetan. Ordea, bi bideraketak lagunkide izaten dira: aldaketak egitura-pean suertatzen dira eta egiturak gantiatzen dira. Peter Burke historialariak aitortu duenez, «historia sozial» edo «soziologia historiko» bat —izena berdin dio, diosku-behar dugu: 1) barneko ulerpenaz eta kanpoko adierazpenaz diharduena; 2) orokorra eta berezia biltzen dituena; 3) egiturak bilatzen soziologoak daukan jokabidea jasotzen duena; 4) al-

daketak adierazten historialariak daukan jarrera hartzen duena; eta 4) berau neuk erantsia da, etnografiaren xehetasunak eta ñabardurak, antropologoa bila dabilenak, erakusten dituenak (ikus Burke 1980: 33).

«Tokian tokiko gizartea eta gatazka soziala»-ren ikergaiak bai benetan eta ezin obeto biltzen dituela antropologiaren eta historiaren azterpideak. Azken hamarkadetako literatura antropologikorik konprometatuenak behinik behik halaxe oharterazi du. Literatura honexek menarpen eta erresistentziatzeko espazio eta denbora kulturaletaz idatzi du luzaro: hau da, kulturaz eta menperatzaileen eta menperatuen arteko harremanetaz. Gizarte, klase sozial, hegemonia, agentzia eta kultura bezalako berbak eta nozioak funtzeko eta eztabaigarri bihurtu dira. Tresa analitiko eta bideraketa teoriko berriak frogatuak izan dira, aztergileek jasotako datu etnografikoen argira. Ea eztabaidaren atzean, desapio gogor eta arriskutsua dago: kulturaren eta historiaren arteko hartu-emanak.

Antropologiatik eta historiatik, beraz, argudio aztergarri berria heldu zaigu, non bide ekonomikoen, ibilera politikoen eta iharduera kulturalen arteko harremanak itaunketa akademikoren mamia eta idazkera etnografikoaren abiapuntu bilakatu bait dira. Bi korronte bereiz ditzakegu historiaren eta kulturaren arteko loturetzat diharduten ikerlanetan: alde batetik, «jokaera hermeneutikoa» dugu, eklektiko nahikoa, zeinak errelatibismo historiko-kulturala indartzen bait du; beste alde batetik, badugu idazle ugariaren talde bat, «ekonomia politikoa» izenpenean bil daitezkeenak, nork formazio sozialak eta harreman sozial egitaratuak ikasten dituzten —berezi, klase sozialen arteko erlazioak (ikus Rebel 1989a, 1989b).

Europako textuingurura etorri z gero, bi azterpideok —hermeneutikoa eta politiko-ekonomikoa, alegia —urbiltzen eta elkartzen saiatu izan ziren ikerlan antropologikoen artean, Erik Wolf-en liburua, Europa eta Historia Gabeko Jendeak (1982) hain zuzen ere, aurreneko ahalegina da. Wolf-en jokaerak zerari egiten dio hots: nola bizitzen dituzten jendeek ari izaten direnetako ekoizpide ezberdinen artikulazio eta lotura-arteak.

Herri kultura aztertzeak gizarteko gatazka astintzen du. Tokian tokiko kontuen ikasketek komunitateek eratzen dituzten muga territorialez gaindi ihardun behar dute, zeren ibilbide sozial zabalagoekin harremanduak eta kutsatuak gertatzen bait dira. Herri kulturari «tradizioa» irizten ohi zaio. Eta tradizioetik neri interesatzen zaidana zera da: kulturaren eta historiaren arteko harremanak; hau da, erlazio sozialen, bilakaera politikoen eta iharduera kulturalen arteko loturak, alegia. Beraz honakoa dut mintzagai. Alde batetik, baserri giroko harremanak eta ikuskerak nolatan datozen «tradizio-tzat» definituak izatera, noiz eta erlazio ekonomiko ezberdin eta zabalago zehatzak gainean jartzen direnean eta estatu-nazioak bideratutako erlazio politikoez tokian tokikoak nagusitzen dituztenean. Beste alde batetik, zera galdetzen diot neure buruari: segun eta zein ideologiatatik begiratzen zaien, nolatan datozen zenbait :iharduera kultural eritualak «tradizio» edo «konspirazio» modura definituak izatera.

Bibliografia

- Agulhon, M. 1970 *La République au village*. Paris: Plon.
- Azcona, J. 1984 *Etnia y Nacionalismo Vasco*. Ed. Anthropos.
- Bourdieu, P. 1977 *Outline of a Theory of Practice*, Cambridge University Press.
- Burke, P. 1980 *Sociology and History*.
- Cohn, B. S. 1962 «An Anthropologist among the Historians», *South Atlantic Quarterly* vol. 61 (13-28).
- Bloch, M. 1985 *From Blessing to Violence* Cambridge University Press.
- Comaroff, J. 1985 *Body of Power and Spirit of Resistance: The Culture and History of a South African People*. The University of Chicago Press.
- Davis, N. Z. 1875 *Society and Culture in Early Modern France*, Londres.
- Desan, S. 1989 «Crowds, Community, and Ritual in the Work of E.P. Thompson and Natalie Davis». *The New Cultural History*, Lynn Hunt (ed.), University of California Press.
- Hobsbawm, E. & T. Ranger (eds.) 1983 *The Invention of Tradition* Cambridge University Press.
- Lan, D. 1985 *Guns and Rain*, University of California Press.
- Lewis, I.M. 1976 *Social Anthropology in Perspective*, Cambridge University Press.
- McPhee 1979 «Popular Culture, Symbolism and Rural Radicalism in Nineteenth-Century France».
- Rebel, H. 1989a «Cultural Hegemony and class Experience» *American Ethnologist*.
- Sahlins, M. 1981 *Historical Metaphors and Mythical Realities*, The University of Michigan Press.
- Taussig, M. T. 1980 *The Devil and Commodity Fetishism in South America* University of North Carolina Press.
- Thompson, E. P. 1974 «Patrician Society, Plebeian Culture». *Journal of Science History* 7(4): 382-405.
- Turner, V. 1974 *Dramas, Fields and Metaphors*, London.
- Urkizu, P. 1988, *Zuberoako Irri Teatroa: Astolasterrak*. Gipuzkoako Kutxa.
- Wolf, E. 1982 *Europe and The People Without History*.